

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 26/2017 Foru Dekretua, maitzaren 2koa, oinarri arauak onartzen dituen laguntzak emateko, Obra eta Zerbitzuetako Foru Planaren bitartez, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei, eta 2018-2019 aldirako deialdia

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2018-2019 aldirako laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2017ko apirilaren 12ko osoko bilkuran, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzeko 9/2017 foru araua onetsi dute; haren denbora-eremuak 2018. eta 2023. urteen bitarteko aldira biltzen du, biak barne.

9/2017 foru arau horren 12.2 artikulua ezartzen duenez, "Laguntzak arautzeko oinarriak ALHAOn argitaratuko dira. Prozedura ebatziko den urtearen aurreko urrirako argitaratu beharko dira."

Foru arau horretan Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Laguntzen Programari dagozkion xedapenak daude adierazita, eta laguntza mota guztiak ematerakoan aplikatu beharreko arau eta irizpideak zehatz azaltzen dira; beste alde batetik, administrazioak egin behar dituen kontratazioen arloan legerari eduki behar zaion begirunearekin batera, ongizatea eta garapena areagotzeko behar diren berme juridikoak ere sartzen ditu.

Horretarako, foru arauak bere azken xedapenetako lehenean emandako garatzeko eta betearazteko xedapen osagarriak ezartzeko ahalmena aplikatuz, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, ezarritakoa aplikatuz, Arabako toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez 2018-2019 aldirako laguntzak arautuko dituzten oinarriak aurkezten dira.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko laguntzen programa arautzen duten oinarriak onartzea.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez 2018-2019 aldirako laguntzak emateko deialdia onartzea, dekretu honi I. eranskin gisa eranstean zaizkion oinarriekin.

Hirugarrena. Eskerak izapidetzeko eskaera inprimakia eta inprimaki osagarriak onestea; dekretu honen 2. eranskin gisa jaso dira eta bosgarren oinarriko 2. puntuko b) atalak hizpide ditu.

Laugarrena. Dirulaguntza konpromisoak, 25.168.891,00 euro guztira, 10.2.03.16.01.762.00.02 partidaren (2018-2019ko Obra eta Zerbitzuen Foru Plana) kontura egingo dira; horretarako, Arabako Foru Aldundiaren 2018. urterako aurrekontuan eta 2019ko konpromiso kredituan gaituko da:

- 12.584.445,50 euro 17.3.18 taldean.
- 12.584.445,50 euro 17.3.19 taldean.

Dirulaguntza horiek ematea Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko eta 2019ko aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo da.

Bosgarrena. Aurreko xedapen zatian adierazitako kopuruak gorabehera, ekitaldi bakoitzerako urteko kredituaren benetako zenbatekoa aipatutako urriaren 12ko 9/2017 Foru Arauak, obra eta zerbitzuen foru plana arautzen duenak, 5 artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da

Seigarrena. Jarraian zerrendatzen diren kopuruak 9/2017 foru arauaren lehen xedapen iragankorrean agindutakoaren arabera gordeko dira:

- 2.220.784,50 euro 10.2.03.16.01.762.00.02 partidan, 173.18 taldean.
- 2.220.784,50 euro 10.2.03.16.01.762.00.02 partidan, 173.19 taldean.

Zazpigarrena. 2 hilabete izango dira laguntza eskaerak eta gainerako agiriak aurkezteko, oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratzen direnetik zenbatuta.

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren saileko diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SÁENZ

I. ERANSKINA

OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANAREN BITARTEZ ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKOTOKI ERAKUNDEEI 2018-2019 ALDIAN LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. ONURADUNAK

Kontzejuek eta udalek heldu ahalko diete ezarritako laguntzei, Gasteizkoak izan ezik. Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek ere bai, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak (aurrerantzean, 9/2017 foru araua) 4. artikuluan ezarritako irismenarekin.

Onuradun izateko, toki erakundeak Arabako Toki Erakundearen Erregistro Ofizialean inskribaturik egon beharko du eskaerak aurkezteko ezarritako epearen azken eguna baino lehenago.

2. LAGUNDU DAITEZKEEN OBRAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEZKO EHUNEKOAK ETA OBRA ETA ZERBITZUAK FINANTZATZEKO LAGUNTZA MOTAK.

A) LAGUNDU DAITEZKEEN OBRAK

9/2017 foru arauaren 7. artikuluan adierazitakoak dira lagundu daitezkeen obrak.

9/2017 foru arauaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, urbanizazio edo oinarritzko azpiegiturako obretan sartutako ekipamendu jarduketa osagarriak (eskudelak, zakarrontziak, markesinak, bankuak, HHS biltzeko sistemak lurperatzea edo ezkutatzea, lorategiak, etab.) joko dira oinarritzko azpiegiturako obratzat. Urbanizazio edo azpiegitura obretan sartutako ekipamendu jarduketak osagarriak direla ondorioztatuko da jarduketa horiei dagozkien diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren zenbatekoa obraren diruz lagundu daitezkeen aurrekontu guztiaren % 25 baino gehiago ez denean. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak (moduluak, gehienezko azalerak, etab.) zehazteko arauak eta jarduketa osagarri bakoitzari dagokion dirulaguntzaren

zenbatekoa kalkulatzeko aplikatu behar den dirulaguntza ehuneko zehaztekoak foru arauan ekipamendukotzat jotzen diren mota bereko obretarako ezarritakoak izango dira.

Lagundu daitezkeen obrei dagokienez:

1. Argiteria publikoa edo 9/2017 foru arauaren 8. artikularen d) 1) atalean edo 9. artikularen c) atalean aipatzen diren azpiegitura edo ekipamenduen beste edozein elementu berritzeko jarduketarako:

Inbertsio bat zentzuzkotzat joko da baldin eta, toki erakundeei berariaz emango zaien eta haiek behar bezala beteta aurkeztu beharko duten inprimakian ageri den kalkulu formula aplikatuta, emaitza 0,33 edo gehiago bada, berritu beharreko instalazioak edo elementu nagusiek 5 urte edo gutxiago dituztenean. Zaharragoak direnean (15 urte, gehienez), inbertsioa zentzuzkotzat jo ahal izateko lortu behar den emaitzak honako formula hau aplikatuta lortzen dena edo handiagoa izan behar du: $0,33 - [(A-5) \times 0,01]$, non A = egungo instalazioak dituen urteak diren.

Justifikazio hori eskaerarekin batera aurkeztu beharko da. Epe horretan aurkezten ez bada edo aurreko paragrafoan adierazitakoa aplikatuz zentzuzko inbertsioztat jotzeko baldintza betetzen ez bada, eskaera baztertu egingo da 2018-2019 deialdiaren eremuan.

2. Udaleko edo udal arteko eguneko arretarako zentroak: eskaerarekin batera, edo gehienez hiru hilabeteko epean eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta, eguneko arretarako zentroak eskatzen dituen toki erakundeak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Ardura hori gain hartzen duen erakunde kudeatzaileak zerbitzua abian jarriko duela bermatzen duen agiri ofiziala.

b) Toki erakunde eskatzailearen eta gizarte ongizatean eskumena duen eta eskatutako ekipamenduan zerbitzua emango duen foru sailaren artean sinatutako hitzarmena.

3. 9/2017 foru arauaren 1. eranskinean aipatzen diren hiri altzariak: lagungarritzat jotzen dira bai tokiko mailan bai toki artekoan. Dirulaguntzaren gehienezko ehuneko aipatutako 1. eranskinean jasotako diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren %50 da.

4. Merkataritza jarduerarik ez dagoen erakundeetan dendak sortzeko eraikinak:

Dirulaguntzaren gehienezko ehunekoak 1. taulan jaso dira. Aplikatu beharreko moduluak 5. taulan adierazitakoak dira, bai tokiko eremu bai toki artekoan. Herrian merkataritza jarduerarik ez dagoela dioen ziurtagiria aurkeztu beharko da, bai eta obra amaitzen denetik 5 urte igaro baino lehen jarduerari ekiteko konpromisoa jasotzen duena ere.

5. Toki erakundeek eskatutako urbanizazio obretan, sare edo instalazioen titularrak partzuergo bat bada, eskaera toki erakundeak egintzat joko da, baina azken horrek eskaerarekin batera hura berresteko dokumentua aurkeztu beharko du, sare edo instalazioen titularrak den partzuergoak emana. Eskatutako jarduketak dirulaguntza jasotzen badu, toki erakunde eskatzaileari emango zaio dirulaguntza. Bai proiektuaren onarpena bai jarduketaren harreraren akta, dirulaguntza jasoz gero, dirulaguntzaren onuraduna den erakundeak eta kasuan kasuko partzuergoak sinatu beharko dituzte.

Ziklo hidraulikoko sareen zati bat udal titulartasunekoak eta gainerakoak beste toki erakunde txiki baten titulartasunekoak izanez gero, aurreko paragrafoan ezarritakoa orobat aplikatu ahal izango da, eta toki erakunde txiki horiek eskaera egin ahal izango dute baldin eta jarduketek bi titulartasunetako sareei eragiten badiete.

6. Elektrifikazioa:

9/2017 foru arauaren 7. artikularen 2.1 atalean sailkatutako elektrifikazio obretan, jabe edo banatzaileak diren konpainiekiko akordioak behar baitituzte, eskaerak toki erakundeak berak edo haren kuadrillak (toki erakundeak eskatuta) egin ahalko dituzte. Nolanahi ere, kasuan kasuko

kuadrillan subrogatu ahalko da izapidetzeko, nahitaezko hitzarmena sinatzeko eta laguntza kudeatzeko.

Nolanahi ere, 2018-2019ko deialdiko dirulaguntzak emateko lehen ebazpena argitaratzen den egunetik hiru hilabete igaro baino lehen sinatu beharko dira 9/2017 foru arauaren 9. artikulua 1. atalaren b) azpiatalak hizpide dituen akordioak. Azpiatal horrek aipatzen duen konpromisoa derrigorrezko betekizuna izango da emandako munta jaso ahal izateko. Arestian aipatutako akordioen ondorioz eman ziren elektrifikazio obretara aplikatu ezin diren dirulaguntzak geroko ebazpenetan emandako dirulaguntzak finantzatzeko edo, hala badagokio, 9/2017 foru arauaren 13.4 artikuluan xedatutakoa finantzatzeko erabili ahalko dira.

7. Zolatzea: 9/2017 foru arauaren I. eranskineko I. kapituluko zolatzeari buruzko atalak aipatzen dituen beste zoladura akabera batzuk soil-soilik onartuko dira araudi bereziren batek (KIA, BIA...) hala eskatzen duenean. Bestela, erakunde eskatzaileak akabera handiagoak aukeratzen ditue-nean, 9/2017 foru arauaren I. eranskineko I. kapituluko 3. taulan jasotakoetatik "Goi estetiko beste akabera batzuk eta berrikuntza teknologikoko produktu berriak" mota hartuko da eta han adierazitako modulu espezifikoak aplikatuko da.

8. Toki eremuko frontoiak estaltzea: herrigunean frontoi publiko estalirik ez dagoenean eta haren gaineko azken jarduketaren antzintasuna 15 urtekoa edo gehiagokoa denean, ehune-koa udaleko edo toki arteko eremuko estali gabeko frontoietakoa estalkiak estaltzeko aplikatu beharrekoa izango da.

9. Edozein motatako berariazko babesa duten eraikinak direnean, 9/2017 foru arauaren I. eranskineko II. kapituluan ezarritakoaren ondorioetarako, izaera berezia justifikatzen duen txostena erantsi beharko da, erakunde eskudunak eginga. Txosten horren ordez, sailkapen hori onartzen duen argitalpen ofizialaren erreferentzia aurkeztu ahal izango da.

10. Ekipamendu obra sailkatuetarako eskaeren kasuan, bideragarritasun plana aurkeztu beharko da, epe berean, eskuragarri jarritako inprimakiaren arabera eginga. Izaera horretako eskaerak ez dira diruz lagungarriak izango ez baldin badute frogatzen, bideragarritasun plana-ren inprimakiaren bitartez eta hor azaldutako moduan, ekipamenduaren mantentze gastuek ez dutela defizitik eragingo toki erakundearen kontuetan.

9/2017 foru arauaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, dirulaguntza eskatu ahal izateko edo emandako dirulaguntza jasotzeko eskubideari eusteko, toki erakunde onuradunek neurri egokiak hartu beharko dituzte, bete daitezen.

B) DIRULAGUNTZEN GEHIENEZKO EHUNEKOAK

Obrak eta zerbitzuak finantzatzeko gehienezko ehunekoak, ordainsari teknikoak alde batera utzita, foru arauaren 9. artikuluan adierazitakoak dira.

C) LAGUNTZA MOTAK

A. Oinarrizko azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak jartzeko obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak, aurreko A) eta B) ataletan jasotako kontzeptu eta ehunekoetan.

B. Proiektuen idazkuntzako eta obren zuzendaritzako ordainsariak finantzatzeko dirulaguntza, obrak benetan aurreko A atalean jasotako laguntzekin finantzatzen badira.

Behar diren ordainsari teknikoen (9/2017 foru arauaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuak) % 50 finantzatu ahalko da gehienez, baldin eta finantzaketa hori haien obrak eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzak ematen dituen ebazpenean espresuki onartzen bada eta lan hauetakoren bat egiteko badira:

a) Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak obra diruz lagundutakoan eskatutako aurretiazko azterlanak, memoriak, proiektu teknikoak eta segurtasun zein osasun planak idaztea.

b) Obrak eta zerbitzuak koordinatzea eta osasun eta segurtasun planak zuzentzea.

C. 9/2017 foru arauaren 7. artikuluko 2.2 bis puntuan aipatzen diren desjabetzapen gastue-tarako dirulaguntza.

9/2017 foru arauaren 6. artikulua 3. atalean aipatutako desjabetzapen kostuen finantzaketarako eskaerekin batera, gutxienez ere, memoria balioetsia aurkeztu beharko da, eta memoria horretan honako hauek jasoko dira: desjabetzapena eskatzen duen jarduketaren deskribapena, desjabetu beharreko lurzati edo finken aurreikuspen xehaketa, azaleraren eta ezau-garrien azalpenarekin, eta haien balioespena desjabetzapenaren ondorioetarako. Dirulaguntza jasotzen badute, Balioespen, Katastro eta Hirigintza Zerbitzuetara edo desjabetzapenetan espezializatuta dagoen eta behin betiko dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartuko diren azter-lana eta balioespena egiteko eskumena daukan zerbitzura joko dute, eta dirulaguntza hori goian 9/2017 foru arauaren 11. artikuluan ezarritako baldintzen menpe geratuko da.

Desjabetutako eremu edo azalaren ordainketen ondoriozko gastuak soilik lagundu ahalko dira diruz, eta sortzen diren bestelako gastu guztiak baztertuko dira, hala nola kudeaketa gas-tuak, profesionalen ordainsariak, okupazio azkarrak eragindako kalteak, etab.

Dirulaguntzaren muntaren kalkulua honako hiru zenbateko hauetatik txikienaren gainean egingo da: kalte ordain (balio justu) gisa finkatutako azken zenbatekoa, eskaerarekin batera aurkeztutako balioespena eta aldundiko zerbitzu espezializatuek egindakoa, aurreko paragra-foetan aipatu dena.

Jarduketa mota honetan aplikatu beharreko dirulaguntza ehuneko gehienez ere % 90 da.

Honela ordainduko da dirulaguntza:

a) Desjabetzapena presaz egiten bada, behin toki erakundeak okupazioaren aurretik gor-dailuaren orria formulatutakoan, aurreiazko okupazio aktan eta gainerako dokumentazioan oinarrituta.

b) "Ohiko" prozeduraren (presakoa ez dena) bidez izapidetzen bada, behin balio justua finkatutakoan.

Egindako ordainketen justifikazioa foru administrazioan aurkezteari dagokionez, aurkezpen hori 9/2017 foru arauaren 18. artikulua 5. atalean ezarritako epean egingo da, hau da, hiru hilabeteko epean dirulaguntza ordaintzen den egunetik zenbatuta.

3. FINANTZAKETA

Dirulaguntza kontsezioak foru aldundia honen dagokion ebazpenaren bidez onetsiko dira, egindako eskaeran oinarrituta eta 9/2017 foru arauan zein oinarri hauetan ezarritako prozedu-raren arabera.

Horrela emandako dirulaguntzak behin-behinekoak izango dira; berraztertu egingo dira eskatzen diren agiri teknikoak aurkeztu ondoren eta, gero, obren adjudikazioaren arabera doi-tuko dira.

Eman beharreko dirulaguntzak "10.2.03.16.01.76.2.00.02 – 2018-2019ko Obra eta Zerbitzuen Foru Plana" partidaren kargura finantzatuko dira; horretarako, Arabako Foru Aldundiaren 2018. urterako aurrekontuan eta 2019ko konpromiso kredituan gaituko da, 9/2017 foru arauaren sei-garren xedapen gehigarrian xedatutakoaren aplikazioari kalterik egin gabe.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN AURREKONTUAK ETA DIRULAGUNTZAREN ZEHAZTA-PENA

1. Bigarren oinarrian aipatzen diren obrak eta zerbitzuak finantzatzeko aurreikusi diren dirulaguntza ehunekoak diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatuko zaizkio hasiera ba-tean, hau da, 9/2017 foru arauaren 11. artikuluan ezarrita dagoen moduan zehaztutakoari. Era berean, 9/2017 Foru Arauaren 11. artikuluko 1. puntuaren A) atalean eta bigarren oinarriaren A atalean bildutako kalkulu berezitasunak aintzat hartuko dira.

2. Aplikatutako gastu orokorrak eta industria etekinak ezin izango dira guztira % 19 baino gehiago izan.

3. Toki erakunde bati emandako dirulaguntzen guztizko zenbatekoa ezingo da izan inolaz ere Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren urteko finantza zuzkiduraren ehuneko hamar baino gehiago, prozedura bideratzen den ekitaldia erreferentziatzen hartuta.

4. 2018-2019 aldiko laguntza programari dagokion Obra eta Zerbitzuen Foru Plana deialdirako aplikatuz, eta 9/2017 Foru Arauaren 8. artikulua f) atalean ezarritakoari jarraituz, obra eta zerbitzuetarako eskaerak ez dira sartuko baldin eta diruz lagundu daitezkeen haien aurrekontua, 11.1 artikuluan ezarritako irizpideen bitartez zehaztua, ez bada aurkeztutako lizitazio oinarriko aurrekontuaren (BEZa barne) % 50 baino handiagoa, azpiegitura obrak badira, edo % 30 baino handiagoa, ekipamendu obrak badira. Murrizketa horren irismena aipatutako f) letran jaso da.

5. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA, MODUA ETA LEKUA

1. EPEA:

2 hilabete izango dira laguntza eskaerak eta gainerako agiriak aurkezteko, oinarri arautzaile hauek ALHAOn argitaratzen diren egunetik zenbatuta.

2. MODUA:

Eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen, toki erakunde bakoitzak udalbatzaren erabakia hartu beharko du, bere antolaketa eta funtzionamendu araubidearen arabera, eskatzen dituen obra eta zerbitzuei buruz, eta horiek bigarren oinarrian zerrendatutako artean egon behar dute.

Erabakia hartutakoan, eskaerak aurkezteko, toki erakundeek dokumentazio hau bete beharko dute:

a. ESKAERA INPRIMAKIA: eskatutako obra bakoitzeko, toki erakundeek horretarako <http://www.araba.eus/web/PFOS> web orrian jarri den eskaera inprimaki normalizatua bete beharko dute. Web orriko inprimaki hori bete ostean, beste inprimaki bat sortuko da aplikazioan adierazten diren argibideei jarraiki. Inprimaki horrek, betetako datuez gain, informazio kodifikatuko elementuak, automatikoki sortuak, jasoko ditu. Behin inprimatuta, toki erakundeek lehendakariak eta idazkariak sinatu beharko dute.

b. OBRAREN ESKAERA INPRIMAKIAREN OSAGARRIAK DIREN INPRIMAKIAK: obraren eskaera fitxaren osagarriak diren inprimakiak <http://www.araba.eus/web/PFOS> web orrian daude, PDF editagarrian. Horiek eskatutako obra motaren arabera bete beharko dira.

Hau da bete beharreko inprimakien zerrenda, eskatutako obra motaren arabera:

– S1 inprimakia - Hirigintzako teknikari aholkulariaren txostena: eskatutako jarduketak guztietarako, eskaerarekin batera, inprimaki hau aurkeztu beharko da; horren bidez, toki erakunde eskatzaileak hirigintza gaietan duen teknikari aholkulariak frogatu beharko du, aurkeztutako dokumentuan oinarrituta, egingo den obra edo zerbitzuak udalaren hirigintza planeamendua betetzen duela, bai eta irisgarritasun eta mugikortasun arloan indarren dagoen araudia ere (9/2017 foru arauaren 12.3.c artikulua).

– S2 inprimakia - Teknikari aholkulariaren txostena, justifikatzeko jarduketak, 35.000.00 euro baino gutxiagokoak, egikaritzeko proiektu teknikoa behar duela: inprimaki hau 35.000,00 euro baino gutxiagoko egikaritze aurrekontua duten obraren eskaerarako soilik bete beharko da, 9/2017 foru arauaren 8. artikulua f) letran adierazitakoaren arabera.

– S3 inprimakia - Lursailak edo eraikinak eskuratzeko zerbitzuak abian jartzeko konpromisoa: inprimaki hau lursailak eta eraikinak erosteko eskaerarako soilik bete beharko da, 9/2017 foru arauaren 9. artikulua 1. ataleko azken paragrafoan ezarritako betebeharra gain hartzeko.

– S4 inprimakia - Zentzuzko inbertsio kostea justifikatzen duen txostena: inprimaki hau gastu arruntean aurrezki nabarmena sortzen duten instalazioen eskaera zehatzetarako soilik bete beharko da, 9/2017 foru arauaren 8. artikulua 1.d atalean eta 9. artikulua 1.c atalean xedatutakoa justifikatzeko.

– SI1 inprimakia - Desjabetzapen gastuak: inprimaki hau desjabetzapen gastuei lotutako eskaerentarako soilik bete beharko da, bigarren oinarriko "C. Laguntza motak" ataleko c letran ezarritakoa betetzeko. Kasu horretan, eskaerak laguntza programa honen kontura diruz laguntzen diren oinarriko azpiegiturak egikaritzeko desjabetzapen gastuen finantzaketa aipatu beharko du, eta eskaerarekin batera aurkeztutako azpiegitura obraren dokumentazio teknikoan aurreikusita egon beharko dute.

– SI2 inprimakia - Partzuergoaren adostasun ziurtagiria: inprimaki hau toki erakundearen eskaerak hornidura edo saneamendu sareetako jarduketak barne hartzen dituen eta haien zerbitzuak partzuergo batean daudenean soilik bete beharko da, bigarren oinarriaren A ataleko ("Lagundu daitezkeen obrak") 10. zenbakian ezarritakoa betetzeko.

– SI3 INPRIMAKIA - Elektrifikazio obraren ziurtagia, toki erakundea ez bada linearen jabea: inprimaki hau toki erakundearen eskaerak 7. artikuluko 2.1 atalean sailkatutako jarduketak (elektrizitate horniduren obra mekanikoa) barne hartzen dituen soilik bete beharko da, toki erakundea linearen jabea ez denean.

– SE1 INPRIMAKIA - Bideragarritasun plana (I) eta (II) ekipamenduen kasuan: inprimaki hauek toki erakundearen eskaerak foru arauaren 7. artikulua 3. atalean "ekipamendu eta zerbitzu obra" gisa sailkatuta dauden obrei buruzkoa denean soilik bete beharko dira. Kasu horretan, ematen diren inprimakien arabera bideragarritasun plan bat aurkeztu beharko da: SE1 (I) erakunde eskatzailea administrazio batzordea bada eta SE1 (II) udala edo kuadrilla bada, 9/2017 foru arauaren II. kapitulu 1. eranskinaren "Hiri altzariak" atalaren aurreko azken paragrafoan adierazitakoa betetzeko.

– SE2 INPRIMAKIA - Eguneko arretarako zentroak, hitzarmena sinatzeko konpromisoa: inprimaki hau toki erakundearen eskaera udaleko edo udal arteko eguneko arretarako zerbitzuak eraikitzei buruzkoa denean soilik bete beharko da. Inprimaki honen bidez, toki erakunde eskatzaileak egiaztatzen du zerbitzua abian jartzeko konpromisoa hartu duela eta ematen den inprimakiaren arabera dagokion hitzarmena sinatu duela, 9/2017 foru arauaren 9. artikulua 1. ataleko azken aurreko paragrafoan agindutakoari jarraiki.

– SE3 INPRIMAKIA - Saltokiak sortzeko xedatutako eraikin publikoak, jarduera hasteko konpromisoa: inprimaki hau toki erakundearen eskaera saltokiak sortzeko xedatutako eraikin publikoari buruzkoa denean soilik bete beharko da. Inprimaki honen bidez, herrian merkataritza jarduerarik ez dagoela egiaztatzen da eta ziurtatzen da jarduera obra bukatzen denetik gehienez 5 urteko epean hasteko konpromisoa hartu dela, 9/2017 foru arauaren eranskineko II. kapituluaren "Ekipamendu erabileren definizioa" atalaren 14. azpiatalean adierazten den moduan.

c. ESKAERARI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA:

– Egin beharreko obra edo zerbitzuaren memoria edo azterlana. Bertan, haren izaera eta funtzio, forma, eraikuntza eta ekonomiari lotutako ezaugarriak xehetasun nahikoarekin deskribatuko dira eta guztizko kostearen zenbatespena, behar bezala xehakaturia (egikaritze materialaren kostua + gastu orokorrak + mozkin industrialak + indarreko BEZa), barne hartuko da, baita profesionalen ordainsarien guztizko kostuen aurreikuspena ere.

– Oinarriko azpiegiturako obrak egikaritzeko beharrezkoak diren desjabetzapen gastuei dagokienez, proiektu edo memoria balioetsia. Horrek desjabetzapena eskatzen duen garatu beharreko jarduketa deskribatu behar du, desjabetu beharreko lurzatiaren edo finken aurreikuspena zehaztu, haien hedadura eta ezaugarriak adierazi eta desjabetzeko ondorioentarako balioetsi.

– 9/2017 foru arauaren I. eranskineko II. kapituluan ezarritakoaren ondorioetarako, edozein motatako berariazko babesa duten eraikinak direnean, izaera berezia justifikatzen duen txostena erantsi beharko da, erakunde eskudunak egina. Txosten horren ordean, sailkapen hori onartzen duen argitalpen ofizialaren erreferentzia aurkeztu ahal izango da.

– Ardura hartzen duen erakunde kudeatzaileak eguneko arretarako zentroetan emandako zerbitzua abian jarriko duela bermatzen duen agiri ofiziala, baita erakunde eskatzailearen eta gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den eta eskatutako ekipamenduan zerbitzua emango duen foru sailaren artean sinatutako hitzarmena.

– Toki erakundeak aurkeztutako bestelako dokumentazioa: toki erakundeak aurkezten dituen eta aurreko ataletan jasotzen ez diren beste agiri batzuk.

Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikuluan adierazitakoak edo aplikagarri den berariazko legedian eskatutako beste batzuk, interesdunari errekerimendua egingo zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ondorioztatuko dela, horretarako ebazpena aipatutako legearen 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

3. AURKEZTEKO LEKUA:

Bosgarren oinarri honetako 2. atalaren a, b eta c ataletan zerrendatutako agiriak paperezko euskarrian eta aurrez aurre eman beharko dira Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean edo Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu duten toki erakundearen erregistro orokorrean, 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, horri dagokionez xedatutakoari eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 3ko 37/2011 Foru Dekretuak, Arabako Foru Administrazioako agirien erregistroaren erregelamendua onartzen duenak, araututakoari kalterik egin gabe.

6. HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

1. Obrak eta zerbitzuak 9/2017 foru arauaren 13. artikuluan ezarritako irizpideen arabera hautatuko dira.

2. Arreta jasotzeko moduko obrak 9/2017 foru arauaren 13. artikuluen 3. puntuak ezartzen duen lehenesteko formularen arabera sailkatzen dira.

Behar eta defizit egoeraren indizeak oinarritzko kalifikazio hauek har ditzake: gehieneko, garrantzitsua, komenigarria edo gerora daitekeena.

3. Gerora daitekeen eskaeratzat joko dira inguruabar desberdinak tarteko obra behar bezala aztertzerik ez dagoenean, dokumentazio teknikoa edo aurrekontukoa bidali delako eta horrek egikaritzearen atal desberdinak bereiztea eragozten badu; hainbat arrazoiengatik, hala nola lursail erabilgarririk ez dagoelako, beste obra batzuk aurretik egikaritzea komenigarria delako edo beste inguruabar batzuk direla medio, ezin denean egikaritu; gaia dela-eta eskudunak diren beste organo batzuen txostenik, baimenik edo irismenik ez egoteak jarduketara laguntza programan xedatutako aldiaren egikaritzea zaildu ahal duenean; edo epe laburrean edo ertainean egikaritzea ezinbestekotzat jotzen ez denean. Nolanahi ere, geroko deialdietarako uzteko modukotzat jo ahalko dira, honetan hura estaltzeko aurrekontua badago ere.

4. 9/2017 foru arauaren 13. artikuluen 2. atalean aipatutako aldagaien haztapena, 2018-2019ko deialdirako, honako hau izango da:

- a) aldagaia = % 40.
- b) aldagaia = % 40.
- c) aldagaia = % 20.

5. 2018-2019ko programako deialdirako ez da aplikagarria izango 9/2017 foru arauaren 12. artikuluko azken paragrafoan aipatzen den ezespene kausa.

7. ORGANO ESKUDUNAK

Eskaerak eta horiekin batera datorren dokumentazioa jasota, Tokiko eta Udalez Gaindiko Azpiegiturak Sustatu eta Finantzatzeko Zerbitzuaren ardura izango da haiek aztertzea eta instrukzio txostena egitea, 9/2017 foru arauan eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera diruz lagundu daitezkeen obrak, zerbitzuak eta ordainsari teknikoak ebazteko proposamenean gauzatuko dena.

Ebazteko proposamena kide anitzeko organo bati aurkeztuko zaio. Organo hori Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailaren titularrak eta Lurralde Oreaken Zuzendaritzaren titularrak osatuko dute. Edukia bere eginez edo, hala badagokio, egoki diren aldaketak eginez, Arabako Toki Administrazioa eta Finantzatzeko Lurralde Kontseiluaren nahitaezko txostenaren eta lege antolamenduak agintzen dituen gainerako txostenen menpe jarriko du 10 egunez, helarazten duenetik zenbatzen hasita. Txosten horiek proposamenaren alde eman direla on-dorioztatuko da horretarako dagoen epea igaro ostean eman eta jakinarazi ez baldin badira.

Aurretik adierazitako baldintzak bete eta egoki jotzen diren moldakuntzak edo zuzenketak egindakoan, kide anitzeko organoak laguntzak emateko proposamena aurkeztuko dio Foru Gobernu Kontseiluari, eta horren onartzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da.

Ebazpenak, diruz lagunduko diren jardueri, zenbatekoei eta toki erakunde onuradunei buruzko edukia dagokionez, Diputatuen Kontseiluari berrespenerako egindako ebazpen proposamenean kide anitzeko organoak ezarri eta onartutako obra eta zerbitzuen lehentasun ordenari lotuko zaizkio.

Deialdia bi urtean behingoa denez, aurreikusten da segidako ebazpenak egin ahal izango direla, horretarako behar den aurrekontua badago.

8. EBAZPENAK JAKINARAZTEA

1. Eskaerak ebazteko epea 7 hilabetekoa izango da, horiek aurkezteko epea bukatzen denetik zenbatuta, zazpigarren oinarriko bosgarren paragrafoan ezarritakoa gorabehera.

2. Obra eta zerbitzuak barne hartzen badira, toki erakundeei horri buruzko ebazpena jakinaraziko die Obra eta Zerbitzuen Foru Planarekin lotutako gaietan eskumena daukan sailak, eta adieraziko du egikaritzeko zer epe duten eta zer baldintza bete behar duten.

3. Dirulaguntzak emateko aurrekontu partiden zenbatekoa bukatu eta gero, toki erakundeei idatziz jakinaraziko zaie zer obra ez den barne hartu, arrazoia azalduz eta zer errekurtso jar daitezkeen adieraziz.

4. Ebazpen horrek administrazio bideari amaiera emango dio.

5. Dirulaguntza emateko zehaztutako baldintzak betetzen ez badira, foru diputatu eskudunak hura bertan behera utzi ahal izango du, jasotako dirua itzularazi ahal izango da, eta, hala badagokio, araudian aurreikusitako erantzukizunei egin beharko zaie aurre.

9. ERANTZUKIZUNA FINANTZAKETAN

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura emandako laguntzen onuradun diren toki erakundeen ardura izango da obra, zerbitzua eta, hala badagokio, dagozkion ordainsariak osorik finantzatzea, bai eta emateko xedatutako baldintza guztiak betetzea ere.

Obra adjudikatu aurretik, erakunde sustatzaileak obraren finantza plana bidali beharko dio Tokiko eta Udalez Gaindiko Azpiegiturak Sustatu eta Finantzatzeko Zerbitzuari. Finantza plan horrek eskatutako jarduketaren gastu guztiak, bai zuzenekoak bai zeharkakoak, estaltzen dituzten baliabideen erabilgarritasuna aurreikusi beharko du.

Finantza plana jasotakoan, Tokiko eta Udalaz Gaindiko Azpiegiturak Sustatu eta Finantzatzeko Zerbitzuak horri buruzko txostena egingo du.

10. OBRAK KONTRATATZEA ETA DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

1. Laguntzen onuradun diren toki erakundeek herri administrazioen kontratuen arloan in-darrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorri adjudikatu eta kontratatuko dituzte obrak.

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagundutako obren kontratuak adjudika-tzean:

1. Nahitaez hartu beharko da aintzat, irizpide gisa, "prezioa" aldagaia. Proposamenak ba-lioesteko, prezioaz gain, beste irizpide batzuk ere aintzat hartu nahi badira, "prezioa" alda-gaiaren haztapena, gutxienez, lor daitekeen puntuazio osoaren % 50 izango da; horrela ezarri beharko da dagozkion iragarkietan, administrazio klausula berezien agirian edo azalpen doku-mentuan.

2. Baldin eta, azaroaren 14ko Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duenak, 147. artikuluan ezarritakoaren babesean, administra-zio klausula berezien agirian jasotzen bada behar bezala balioetsitako aldaera eta hobekuntzen eskaintza aintzat hartzeko aukera, emateko dirulaguntza murriztu egingo da, enpresa adjudi-kaziodunaren aipatutako aldaera eta hobekuntza horien balioespenak adjudikatutako obraren kostu osoari dagokionez duen ehuneko berean murriztu ere.

3. "Gizarte eta ingurumen klausulak" sartzea nahitaez hartu beharko da aintzat irizpide gisa. Haien haztapena, gutxienez, lor daitekeen puntuazio guztiaren % 20 izango da, eta horrela ezarri beharko da dagozkien iragarkietan eta administrazio klausula berezien agirietan edo azalpen dokumentuan.

Arau orokor gisa, laguntzak jasotzen dituzten toki erakundeek zuzenean izapidetu eta kon-tratatuko dituzte obrak. Horretarako, aholkuak emango dizkiete Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailaren unitateek eta Arabako Foru Aldundiko beste batzuek, behar izanez gero.

Baldin eta, proiektatutako obraren barruan, hirugarrenen eskumeneko leku edo instala-zioetan jarduketaren bat egin behar bada, hirugarren horiek gain hartu ahal izango dute obra horiek kontratatzeko eta egiteko ardura. Aldez aurretik lankidetzaz hitzarmena sinatuko da, eta han jasoko dira, besteak beste, sinatzen duen alderdi bakoitzaren konpromisoak eta jarduketak behar bezala eta araudian ezarritakoa betez egikaritzeko behar diren beste alderdi guztiak.

2. Dirulaguntzak ordaintzea:

a) Arautzen duen foru arauaren 18. artikuluan ezarritakoari jarraituz ordainduko dira dirulaguntzak.

b) Dirulaguntzaren % 30en ordainketa, 18. artikuluko 2. puntuko a) letran aipatutakoa, egin aurretik, diruz lagundutako obren lehenengo ziurtagiriak eta fakturak aurkeztu beharko dira, toki erakundeak behar bezala onartuta, bai eta zuinketa egiaztatzeko akta eta obraren hasierarena ere.

Ordainketaren aurretik, toki erakunde onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, haren idazkariak edo fede emaileak egina; horren bidez, ziurtatuko da toki erakundearen diruzaintzak diruz lagundutako obrak finantzatzeko jasotako funtsen eskuragarritasun berehalakoa eta es-klusiboa bermatzen duela, eta kontratatari dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak ahalik eta lasterren, obra ziurtagiriak eta horien bitartez estali ahal diren fakturak jasotakoan, ordaintzeko konpromisoa hartu duela.

c) Dirulaguntzaren % 40ren ordainketa, 18. artikuluko 2. puntuko b) letran aipatutakoa, egin aurretik, adjudikatutako diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 50 gutxienez egikarituta

dagoela erakusten duten obra ziurtagiriak eta fakturak aurkeztu behar dira, bai eta horiei buruz behar diren txostenak egin ere.

d) Gainerako % 30aren ordainketa obra bukatutakoan egingo da. Aldez aurretik, 18. artikuluko 3. puntuko c) letran eskatzen diren frogagiriak aurkeztu beharko dira, baita horien gaineko txostenak ere, behar izanez gero. 16. artikuluko 2. puntuko e) letran aipatzen diren agiriak (obra amaierako dokumentazioari eta informazio kartografikoari buruzkoak) aurkezteko eskatu ahalko da, dirulaguntzaren % 30 hori ordaindu baino lehen.

Nolanahi ere, % 30 hori ordaintzeko baldintza izango da bete beharreko administrazio dokumentu guztiak Tokiko eta Udalez Gaindiko Azpiegiturak Sustatu eta Finantzatzeko Zerbitzura bidaltzea: lana egin aurrekoak nahiz egin bitartekoak, hala nola aktak, hasierakoa, zuinketa egiaztatzea eta harrerakoa, amaierako ziurtapena, etab.

e) Foru arauaren 7. artikuluen 3.6 eta 3.13 ataletan bildutako jarduketak finantzatzeko emandako dirulaguntzen kasuan eta aipatutako artikuluen 2.2 bis atalean kokatutako kasuan, horretarako onetsitako arauketan ezarritako baldintzak betetakoan egingo da ordainketa.

3. Obra amaitu ondoren, toki erakundeak enpresa adjudikaziodunari egindako ordainketen egiaztapenak bidali beharko dizkio, hiru hilabeteko epean.

Toki erakunde onuradunak Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari eskatu ahal izango dio dagokion dirulaguntza enpresa adjudikaziodunari zuzenean ordaintzeko. Horretarako, sailak inprimaki estandarizaturik emango du, eskaera bertan jasotzeko. Kasu horretan, toki erakundeak honako hau aurkeztu beharko du: kontratistari obraren kostu osoaren eta ordaindutako dirulaguntzaren arteko kendura ordaindu diola justifikatzen duen ordainagiria.

Modalitate hori hautatzen bada, dirulaguntzen konturako ordainketa egin aurretik, erakunde onuradunak behar bezala onartutako obra ziurtagiriak eta jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatutakoak aurkeztu beharko dira eta Arabako Foru Aldundiak izendatutako teknikari esku-dunek onzat eman beharko dituzte, aurkeztutako ziurtapen bakoitzari dagokion muntan.

4. Planaren babespeko obretako proiektuak eta segurtasun eta osasun planak idazteko dirulaguntzen ordainketa 18. artikuluen 3. puntuko d) letran ezarritakoari jarraituz egingo da.

5. Obra zuzendaritzako eta segurtasun eta osasun arloko koordinazioko ordainsarietarako dirulaguntzak obra amaitu eta gero ordainduko dira, 18. artikuluen 3. puntuko d) letran ezarritakoari jarraituz.

6. Emandako dirulaguntza benetan jasotzeko ezarritako baldintzak betetzea nahitaezkoa izateaz gain, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzez finantzatutako obrek bukatuta egon beharko dute 2019ko abenduaren 31n. Egun horretarako, foru arauaren 6. artikuluen 3. atalak hizpide dituen desjabetzapenengatiko ordainketek ordainduta egon beharko dute.

11. DIRULAGUNTZA BAT BAINO GEHIAGO ALDI BEREAN

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagundutako obrak edo zerbitzuak sustatzen dituen toki erakundeak Arabako Foru Aldundiko beste laguntza programa batzuetatik edo beste erakunde, entitate edo organismo publiko edo pribaturen batetik ere dirulaguntzak edo laguntzak jaso baditu edo jasoko baditu obra edo zerbitzuok finantzatzeko, laguntza horiek elkarrekin bateragarriak izango dira, salbu eta obraren edo zerbitzuaren kostuaren % 100 gainditzen badute. Kasu horretan, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren konturako ekarpena % 100 horretaraino murriztuko da.


Foru arauaren 19. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako betebeharrari dagokionez, betetzat joko da ematen duen organoak Lurralde Oreka Zuzendaritzari ofizialki komunikatzen diotenean laguntza programa honetan sartutako obretarako beste dirulaguntza bat edo batzuk eman direla, baita bakoitzaren zenbatekoa ere.

12. INFORMAZIOA EMAN BEHARRA

Dirulaguntzaren erakunde onuraduna behartuta dago Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematera.

13. ARAU ESPARRUA

Oinarri hauek berriaz arautu ez diren alderdi guztietarako, honako hauek hartuko dira kontuan: Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen Foru Araua; urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa; eta azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzen lege orokorra.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS	Programa 2018-2019	SE2
	Eguneko zentroetarako laguntza eskaerak: Hitzarmena sinatzeko konpromisoa Solicitudes de ayuda para centros de atención diurna: Compromiso suscripción Convenio		

Ekonomia Garapenaren
eta Lurralde Oreekaren Saila

Departamento de Desarrollo Económico
y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreekaren
Zuzendaritza

Dirección de
Equilibrio Territorial

Toki Erakundea ■ Entidad Local	
Harremanetarako pertsona ■ Persona de contacto	Telefono zk. ■ N° de teléfono
Obraren izena ■ Denominación obra	

D./D.^a jaunak / andreak

aipatutako erakundearen idazkariak edo kontu-hartzaileak el/la Secretario/a o Interventor/a de la citada entidad,

ZIURTATZEN DU

1. Gizarte Zerbitzuen arloan eskumena duen foru sailak adierazi du ados dagoela laguntzaren xede den obra egingo den eguneko arretarako zentroan zerbitzua emateko **hitzarmena sinatzearekin***, apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako ekipamenduan zerbitzua abian jartzea bermatuz.

CERTIFICA

1. El Departamento Foral competente en materia de Servicios Sociales ha mostrado su conformidad con la **suscripción del Convenio*** para la prestación del servicio en el Centro de atención diurna para cuya obra se solicita ayuda, con arreglo a lo establecido en el artículo 9 de la Norma Foral 9/2017 de 12 de abril, garantizando la puesta en funcionamiento del servicio en el equipamiento subvencionado.

.....
(Tokia eta data / Lugar y fecha)


O. E. Alkate – Lehendakaria
Vº Bº El/La Alcalde/sa – El/La Presidente/a

Idazkaria – Kudeatzailea
El/La Secretario/a – El/La Fiel de Fechos – Gerente

(Zigilua / Sello)

* Agiri hau eta hitzarmenean adierazten dena Arabako Foru Aldundiaren Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaletaren Zerbitzura bidali behar da **gehienez ere 3 hilabeteko epean**, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2018-2019 plangintzaldiaren epea amaitzen denetik hasita.

* Este documento junto con lo que en él se expresa, debe ser remitido al Servicio de Promoción y Financiación de Infraestructuras Locales y Supramunicipales de la Diputación Foral de Álava **en un plazo máximo de 3 meses** desde la finalización del plazo para la presentación de solicitudes de la convocatoria del Programa del Plan Foral de Obras y Servicios 2018-2019.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS	Programa 2018-2019	SI2
